



IX. "OLABERRIA KONPAINIA"

ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. **HELBURUA:** Olaberria Konpainiarekin zerikusia duen argazkia sustatzea, aitortzea, saritzea eta zabaltzea.
2. **GAIA:** Argazkiek 2023koak izan beharko dute eta Olaberria Konpainiarekin lotuta egon beharko dute, hau da, dela San Martzial Alardean, dela konpainiak parte hartzen duen gainerako ekitaldi eta jardueretan: San Pedro eguneko ikuskaketa, entsaioak, Alardealdia, Marrazki eta Pintura Lehiaketa, musika-tailerrak, bozketak, batzarrak, bilerak, etab.
3. **PARTE-HARTZAILEAK ETA IZEN-EMATEA:** Pertsona guztiei irekia, adin, sexu edo inolako baldintzarik gabe. Izen-ematea doakoa da info@companiaolaberria.com helbidera mezu elektroniko bat bidaliz. Aurkeztutako argazkiek argitaragabeak eta originalak izan beharko dute.
4. **ARGAZKIAK ONARTZEA:** Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu. Entregatzeko azken eguna uztailaren 31 izango da, eta aipatutako helbide elektronikora bidaliko dira. Argazkien izenburua, egilearen izen-abizenak eta harremanetarako telefono bat agertu beharko dira.
5. **BALDINTZA TEKNIKOAK:** Argazkiak JPG formatokoak izango dira, gutxienez 1024x1024 pizelekoak eta gehienez 6 MG pisukoak.
6. **EPAIMAHAIA:** Batzordeko bi kidek (horietako bat kapitaina), konpainiako hiru kidek eta establezimendu laguntzaileetako bi pertsonak osatuko dute. Erabakia apelaezina izango da.
7. **ERAKUSKETA:** Argazki onenen aukeraketa bat konpainiarekin elkarlanean aritzen den establezimenduetako batean erakutsiko da, baita web orrian eta sare sozialetan ere.
8. **ESKUBIDEAK:** Argazkien egileek Olaberria Konpainiari lagatzen dizkiote argazkiok erabili, zabaldu, banatu, erakutsi eta erreproduzitzeko eskubideak, sustapen -eta/edo kultura-helburuekin, mugarik gabe, eta beti egilea eta irabazi-asmorik gabea dela aipatzeko konpromisoarekin.
9. **SARIAK:** 1., 2. eta y 3. sariak egongo dira, lehiaketaren antolatzaileek zehaztuko dituztenak.

AZKEN OHARRAK:

- Sor daitekeen edozein zalantza edo ezusteko antolakuntzak ebatziko du.
- Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.